



(JAÁRAIPENA)

Teresatxo'ren aitzak


Zorionezko ezkontza zuzenez batuta egozan Martin-Gerin senar-emazteak nai ta nai ez igali gozo joriak ekafi bear!

Zelia'k ezkondu aúfetik Jaungoikoa'ri zuzendu eutson otoya bai sutua: *Aren, Jauna, seme asko emon egidazuz ta gustiak zeure jopu bereziak izan daitezala!* Eskari au entzuna izan zana ezagun da, seme-alaba asko ta danak Jaungoikozaleak eta bere jopu (mofoi) zintzoak izan ziran-eta.

Baratz guri onetan bederatzi lafosa-buru bata bestea baño zuri-gofiagoak jayo ziran; goitik etozan ufe zurizko izar dizizariak zirala esan eikean. Ona emen euren izenak eta nor non aurkitzen dan: Miren Koldobike, 1860'ko Zezela'ren 22'an jayo zan eta orain Biotz Deunaren Miren deritxola Lisieux'ko Bakartegian karmeldar lekaime dago.—Miren Pauline, 1861'ko Iraía'ren 7'an lenengoz argia ikusi eban, ta onoimenez beteta Lisieux'ko Lekaimetxean bizi da.—Miren Loni, 1863'ko Bagila'ren 3'an etofi zan lufera ta gaur Kaen'go Ikarkunde'ko Lekaimetxea aurkitzen da.—Miren Elene, 1864'ko Ufila'ren 19'an jayo ta lau urte baru il zan.—Miren Joseba Koldobika, 1866'ko Iraía'ren 20'an jayo ta bost ilabete gafenean il yakena.—Miren Joseba Jon Ugutzaria, 1867'ko Negula'ren 19'an lufera jatsi ta bederatzi ilabegaz bafiro zerura egaz egin eban aingerua.—Miren Keline, 1869'ko Jofala'ren 28'an jayo zan, lekaime sartu zanetik gora Arpegi Deuna'ren Genobeba da bere izena ta Lisieux'ko Lekaretxean bere beste aizta biekaz zorientsu bizi da.—Miren Melani Terese, 1870'ko Dagonila'ren 16'an jayo ta iru ilabete baru il zan.—Azkenez, Miren Pantzeske Terese, geure *Teresatxo Gurena*.



Onexek dira sendi zoriontsu artako baratzean jayo ta azi ziran lorak; onexek egunokaz, ludi osoa ari egiñik daukon gure Teresatxok aurretik euki ebazan zortzi *zitoriak*. Onexek, senar-emazte dontsu areik sortu ebezan igali mardulak.



Zugatz onak ezin daikela igali txafik ekafi, ezta zugatz txafak igali edo arnari onik be sañitan entzun doguna da. Badaezpada barik, olangoxeak izan bear eben, ba, guraso onen seme-alabak. Ta eurak bai seme-alabak, eurak! Danak bata-beste baño zintzo ta esanekoagoak. Gurasoak ez euken orain agiraka ta gero diadarka zetan jardun; begirune bat zan naiko etxea zuzen ibilteko. Beñolako asabe zañen erako bizitza egien; griña ta gofoto-atsez zitaldutako axerik ez eben arnastu gura, ezta lufeko zorakerietan nastuterik be; donoki-bizitz betikoña zan euren nai ta opa guztien elburu bakafa. Ituntasunak iñoz ez eban etxe artan arpegirik erakutsi; bada Bernarta Deunak antxiña iñoan: «Bizitza zuzen eratsu ona ba



-dagizu, ituntasunik eztozu ezagutuko; Bizitza zuzenak ondoren poztasuna dakar beti.» Egunero aitamak ezeze alabak be, oindiño gazteak zirala, Mezara joaten ziran ta Gotzonen Ogi-az safi bulafak sendotuten ebezan. Birau, iñaka ta itz (berba) zantafik egundo etzan an entzungo, Jaungoiko ta deunetzazko izketa onuragafiak baño. Gabean-gabean etxeko gustiak batu ta aitak txikefena belaunetan ebala idazti deunen baten irakurten ebezan irakurkizunakaz biotz-adimenak janaritu, azken-otoyak esan ta neskatotxoari bekoki-erdian mosu gozo bana emonik, Jaungoikoagaz ogeratzen ziran.

Gazteok, aurtzaroari agur eginda zerbait andratu zireaneko, euren etxeko egitekoetan aldia emon eroyen; batzuetan josten edo irakurten, beste batzuetan oyak egiten, eskaratza, txakiak eta beste zokondoak garbitzen, bein esateko, eratsu baxen maratz gurasoai lagunduten beti. Gotzonak (aingeruak) eurak be onen bizikerea ondamuz ikusten eben ufean. Griña-kokoak eñayak janda egunotan makalik daukagun gizarteak sendi debar onegandik badauka zer ikasi.

Mans'ko Sales'tar lekaimien ikastolara asi ziranean, (askotan gure neska-mutilak lez sasi-eskola egin barik) lekaimeak aginduriko ikaskizunak ikasten beti ebiltzazan zoli; ta gero etxeratzen ziranean, arena bai poza irabazi zituen sari ta zenbaki (nota) onak gurasoari erakusten!

Martin-Gerin senar-emazteak, arazo gustietan ofen zoli ta arduratsu ikusirik euren alabak, mosu ta ereguz betetan ebezan. Miren'i beti eritxon aitak bere «Ikatz aña», Pauline'ri, bañiz, «Bitxi edeña», ta azkenez Loni bildots otzan polit bat zan ta Zeline, arik eta Teresatxo jayo zan arte, etxeko *sagutxo*a, aitak kutunen ebana. Amak be gustiak maite ebazan. Etxeko poztasuna ta bertako axea deun-usañez lufuntzen eben neskatil zoragafiak ziran-eta nok ez ebazan maite izango.

Baña baratz osoa lufunduko eban mao edo klabelin gofia oraindik jayoteko egoan; ofaitiño naita negu-biotzean izan —baratz jator ondo landuetan neguz be lorak ikusten dira— laster agertuko zan iñondiko apaindurarik zoragafienakaz.

S. ONAINDIA K. O,

(*Jaraitzeko*)